

14. GAIA: “Senipartea”

I.-ARAUDIA

Kode Zibila: 806-847. artikulua

41/2003 Legea, azaroaren 18koa, pertsona ezinduen ondarea babesteari buruzkoa.

Euskal izatezko bikoteei buruzko legea: 2/2003 Legea, maiatzaren 7koa, izatezko bikoteak arautzeari buruzkoa.

EHFZZL, 1992koa

Nafarroako Foru Berria

II.-KONTZEPTUA ETA IZAERA JURIDIKOA

Kode zibilak ezartzen duen sistema ez da kausatzaileari bere jaraunspena askatasun osoz xedatzeko baimena ematen diona. Guztiz kontrakoa, izatez. Kode zibilak SENIPARTEA sakonki arautzen du. 806. artikulua dionaren arabera, beraz, *legítima es la porción de bienes que el testador no puede disponer por haberla reservado la ley a determinados herederos, llamados por esto herederos forzosos*. Egia esan, artikulua dioena ez da erabat zuzena, Kode zibilaren sistema osoa kontutan hartuta:

1.-Alde batetik, esan beharra dago senipartea ez diola testatzaileari bere xedatzeko askatasuna murrizten hasieratik. Harek nahi duen bezala antola dezake bere oinordetza: ez die derrigorrezko oinordekoei zati bat gorde behar bere testamentuan. Horrela, testatzaileak derrigorrezko oinordekoei dagokiena gordetzen ez badie bere jaraunspenaren antolaketan, legea kargutzen da senipartedun hoiei dagokiena eskatzeko bideak eskaintzeaz. Ikus dezagun, bestela, KZeko 815. artikulua xedatzen duena: *el heredero forzoso a quien el testador haya dejado por cualquier título menos de la legítima que le corresponda, podrá pedir el complemento de la misma*. Beraz, senipartea ez da testatzaileari ezartzen zaion debeku bat, betebeharrak batzuk. Ez badu bere kabuz betetzen, legeak senipartedunei eskaintzen die senipartea eskatzeko tresna juridikoa. Baina ez da deuseza izango testamentua seniparterik ez badago bertan, gerora onuradunek eskuratu dezaketenez zerbait baita, hartzekodunak bailiran bezala.

2.-Bestalde, 806. artikuluan senipartedunak derrigorrezko JARAUNSLE gisa agertzen dira aipatuak eta hori ere ez da zuzena. Senipartedunek haiei dagokiena jaraunsle tituluz jaso dezakete, bai, eta kasu horretan jaraunsle izango dira. Baina legatudun gisa jaso dezakete dagokiena eta baita kausatzailea bizirik zegoenean jasotako *inter vivos* dohaintzen bidez. Beraz, senipartedunak DERRIGORREZKO OINORDEKOAK dira, ez DERRIGORREZKO JARAUNSLEAK, nahitaez.

Senipartedunak, Kode zibilaren araudiaren arabera, kausatzailearen jaraunspenaren HARTZEKODUN gisa kontsideratuak dira: jaraunspena kitatu ostean geratzen den ondare likidoaren zati bat hartzeko eskubidea dute, bakoitzari dagokion proportzioan (ondorengoek aurre ahaideek baino gehiago jasotzeko eskubidea dute, adb). *PARS BONORUM* izaera du seniparteak, printzipioz, hau da, jaraunspenaren ondasunekin ordaindu behar zaie senipartedunei haiei dagokiena, nahiz eta Kodeak berak *PARS VALORIS* diren kasuak arautu ere, hots, senipartedunei dagokien balioa ordaintzeko beharra ezarri, baina jaraunspena osatzen ez duten beste ondasun batzuekin ordaintzeko aukera eman. Aurrerago aztertuko ditugu suposamendu hoiak. Senipartedunek, beraz, AKTIBO LIKIDO bat jasotzeko eskubidea izango dute, behin zorrak ordainduta. Zorrek ez badute aktibo likidorik utzi, orduan ez dute dagokiena jasoko, dirurik ez baita egongo jaraunspenean. Halaber, ez dute zorren aurrean erantzuten senipartedunak izateagatik, baina jaraunsle tituluz izendatuak izan badira testamentuan, orduan bai erantzungo dute, baina ez senipartedunak direlako, jaraunsle direlako baizik.

III.-SENIPARTEDUNAK ETA HAUEI **DAGOKIENA**

Kode zibileko 807. artikulua da senipartedunak nortzuk diren argi ezartzen duena: Son herederos forzosos: *1º. Los hijos y descendientes respecto de sus padres y ascendientes. 2º. A falta de los anteriores, los padres y ascendientes respecto de sus hijos y descendientes. 3º. El viudo o viuda en la forma y medida que establece este Código.* Beraz, senipartedunak ondorengoak, aurre-ahaideak eta ezkontide alarguna dira. Aurre-ahaideak ez dira senipartedunak izango, ordea, ondorengoak baldin badaude. Gainera, ondorengo bat hilik badago, desjaraunstua izan bada edo ezduina bada, ordezkatzeko eskubidearen poderioz, bere oinordekoak jarriko dira bere tokian, kausatzailearen jaraunspenarekiko, soilik seniparte hertsian. Ordezkatze eskubidea ematerik badago,

preferentzia izango dute ordezkatzeko eskubidearen birtutez senipartedun bilakatzen diren ondorengo hoiek aurre ahaideen aurrean. Ondorengorik ez badago izango dira senipartedun aurre-ahaideak, beraz, edo ordezkatzeko eskubidea ezin denean eman. Ezkontide alarguna beti izango da seniparteduna, aldiz, eskubidea galtzeko arrazoirik ez badago, noski:

- | |
|---|
| <p>1.-Seme-alabak eta ondorengoak, ordezkatzeko eskubidea kontutan hartuta</p> <p>2.-Ez badago ondorengorik, guraso eta aurre-ahaideak</p> <p>3.-Ezkontide alarguna aurrekoekin ala bakarrik</p> |
|---|

KZeko 808 eta hurrengo artikuluek zehazten dute, baina, senipartedun talde bakoitzari dagokion senipartea. Azter ditzagun banaka.

1.-Ondorengo senipartea

Kode Zibileko 808. artikulua zehazten du ondorengoei dagokien senipartea zenbatekoa den: *constituyen la legítima de los hijos y descendientes las dos terceras partes del haber hereditario del padre y de la madre. Sin embargo, podrán éstos disponer de una parte de las dos que forman la legítima, para aplicarla como mejora a sus hijos o descendientes. Cuando alguno de los hijos o descendientes haya sido judicialmente incapacitado, el testador podrá establecer una sustitución fideicomisaria sobre el tercio de legítima estricta, siendo fiduciarios los hijos o descendientes judicialmente incapacitados y fideicomisarios los coherederos forzosos. La tercera parte restante será de libre disposición.* Ondorengo artean, hala ere, gradu hurbilenekoek bidea itxi egiten diete hurrengo gradukoei, hau da, kausatzailearen seme-alabak dauden bitartean, hauen seme-alabak ez dira senipartedunak izango, ordezkatzeko eskubidez ez bada.

SENIPARTE ASKEA	HOBEKUNTZA	P.

Ondorengoak daudenean, beraz, kausatzaileak hiru herenetan dauka zatitua jaraunspena, hala beharrez. Bi herenek SENIPARTE ZABALA osatzen dute. Hoietatik heren bat derrigorrez senipartedunen artean banatu behar da, zati berdinetan eta ordezkatzeko eskubidea kontutan izanik. Beste herena, nahi izatekotan, HOBEEKUNTZA gisa erabil lezake testatzaileak, bere ondorengoan artean (seniparteduna izan ala ez) bat edo batzuk bereizteko, alegia, besteei baino gehiago utziz. Azken herena xedatzeko parte askea da, eta kausatzaileak horrekin nahi duena egin dezake.

2.-Aurreko-ahaideen senipartea

Kode Zibileko 809. artikulua zehazten du aurreko ahaideei dagokien senipartea zenbatekoa den: *constituye la legítima de los padres o ascendientes la mitad del haber hereditario de los hijos y descendientes, salvo el caso en que concurrieren con el cónyuge viudo del descendiente causante, en cuyo supuesto será de una tercera parte de la herencia.* Aurreko ahaideen artean banatzeko, Kodeko 810. artikulua zera dio, gainera: *la legítima reservada a los padres se dividirá entre los dos por partes iguales; si uno de ellos hubiere muerto, recaerá toda en el sobreviviente. Cuando el testador no deje padre ni madre, pero sí ascendientes, en igual grado, de las líneas paterna y materna, se dividirá la herencia por mitad entre ambas líneas. Si los ascendientes fueren de grado diferente, corresponderá por entero a los más próximos de una u otra línea.*

SENIPARTEA	P. ASKEA
------------	----------

Ezkontide alargunarekin batera badira senipartedunak, aldiz, honako hau izango da banaketa:

Senipartea Askea	P. Askea	P.
---------------------	----------	----

Banatzeko era ere ezartzen du, ikusi dugun bezala, KZeko 810. artikulua:

1.-Senipartearen erdi bana guraso bakoitzari. Bat hilik badago edo ezgaia bada, besteari dagokio dana, ez baitago goranzko lerroan ordezkatzeko eskubiderik.

2.-Ez badago gurasorik baina bai aurre ahaide gehiago, gradu berekoak badira, lerro bakoitzeko erdi bana.

3.-Gradu ezberdinekoak badira, ordea, dena hurbilen daudenek jasoko dute.

Arau orokor horiek ezarri eta gero, gogoratu bi erakunde hauen eragina aurreko ahaideen senipartearen gain:

(1) Erreserbatzeko obligazioak: *el ascendiente que heredare de su descendiente bienes que éste hubiese adquirido por título lucrativo de otro ascendiente, o de un hermano, se halla obligado a reservar los que hubiere adquirido por ministerio de la ley en favor de los parientes que estén dentro del tercer grado y pertenezcan a la línea de donde los bienes proceden* (κzeko 811. art.); erreserbei buruzko ikasgaian azalduko dena.

(2) Atzera-itzultze bidez jasotzeko eskubideak: *los ascendientes suceden con exclusión de otras personas en las cosas dadas por ellos a sus hijos o descendientes muertos sin posteridad, cuando los mismos objetos donados existan en la sucesión. Si hubieren sido enajenados, sucederán en todas las acciones que el donatario tuviera con relación a ellos, y en el precio si se hubieren vendido, o en los bienes con que se hayan sustituido, si los permutó o cambió* (κzeko 812. art.).

3.-Ezkontide alargunaren senipartea

Kode Zibileko 834. eta hurrengo artikuluetan zehazten da dagokion senipartea zertan datzan eta zenbatekoa den.

Ezkontide alargunak seniparte-eskubidea izateko, honako betekizun hauek eskatzen dira: ezkontza baliozkoa izatea eta kausatzailea hiltzean oraindik irautea eta, gainera, banandu gabe egotea, judizialki edo egitatez. Hain zuzen ere, Kodeko 834. artikulua zera dio: *el cónyuge que al morir su consorte no se hallase separado de éste judicialmente o de hecho*. Gero, hurrengo artikulua erregimena osatzen du: *si entre los cónyuges separados hubiera*

mediado reconciliación notificada al Juzgado que conoció de la separación de conformidad con el artículo 84 de este Código, el sobreviviente conservará sus derechos. Ezkontide alarguna banantzeko epaia eman aurretik hiltzen bada, epaia atera arte itxarongo da (KZeko 835. art). Baina banaketa prozedura hasita ez badago, oinordekoek ezingo lukete prozedura martxan ipini haien kabuz, akzioa pertsonalegia baita, ezkontideei dagokie soilik.

Alargunaren senipartea zertan datzan hainbat artikulutan aipatzen da: usufruktu eskubidea (KZeko 834., 837. eta 838. artk.: *derecho al usufructo*). Alargunaren senipartea, izaeraz, berezia da, eskubide erreal mugatua delako eta legeak sortzen duelako (KZeko 468. art.). Gainera, horregatik, ez da jaraunlea ezkontide alarguna, gozamina legatu baten edukia delako, printzipioz.

Alargunaren senipartea zehazteko, oinordekide nor dituen kontuan hartzen da:

1.- *Si concurre a la herencia con hijos o descendientes, tendrá derecho al usufructo del tercio destinado a mejora* (KZeko 834. art.).

2.-*No existiendo descendientes, pero sí ascendientes, el cónyuge sobreviviente tendrá derecho al usufructo de la mitad de la herencia* (KZeko 837.1. art.).

3.-*No existiendo descendientes ni ascendientes, el cónyuge sobreviviente tendrá derecho al usufructo de los dos tercios de la herencia* (KZeko 838. art.).

Ezkontide alargunaren aldeko usufruktu-eskubidea eratzen bada, **konmutatzeko eskubidea ematen zaie jaraunleei** (gozamen eskubidearen balioa dirutan edo beste ondasunekin ordaintzea, alegia, trukatzea); kausatzaileak ezarri beharrik izan gabe, legeak ezartzen du eskubide hori:

(1) Kommutazio orokorra Kodeko 839. artikulua arautzen du: *los herederos podrán satisfacer al cónyuge su parte del usufructo, asignándole una renta vitalicia, los productos de determinados bienes, o un capital en efectivo, procediendo de mutuo acuerdo y, en su defecto, por virtud de mandato judicial. Mientras esto no se realice, estarán afectos todos los bienes de la herencia al pago de la parte de usufructo que corresponda al cónyuge.* Helburua banaketa erraztea da, usufruktua konmutatuz ondasunen jabetza-eskubidea zamarik gabe uzten baita; alegia, banaketa egin aurretik egikaritu beharreko ahalmena da, eskubide horiek (hala dagokionenean, usufruktu-eskubide errealak) izaeraz behin-betikoak izan behar baitute jaraunspena banatu eta bakoitzari eskubideak eman ostean. Ikuspegi subjektibotik, usufruktua jasaten duen edozein jaraunlek

eska dezake eta, bat baino gehiago badira, erabakia aho batez hartu beharko dute; objektibotik, berriz, usufruktu osoa kommutatu beharko dute. Honela egingo da: biziarteko errenta, ondasun jakinen ekoizpena edo diru-kopurua ematea; eskubide erreala iraungi eta kreditu-eskubidea sortzen da. Alargunak kommutatzeko erabakia errespetatu beharra dauka, baina, moduarekin ados ez badago, baimen judiziala eskatu beharko da.

AGE 2001/10/4 (RAJ 7542): Ese mutuo acuerdo, que, obvio es, abarca a un consenso no sólo de herederos sino también con la participación del propio cónyuge viudo como titular de su cuota (...), cuando no exista ese mutuo acuerdo dicha satisfacción se adoptará en virtud del mandato judicial.

AGE 2000/10/25 (RAJ 8549): La opinión científica, en general, considera que la facultad de elegir una de estas formas expresadas en el artículo 839 corresponde a los herederos, sean voluntarios o forzosos, testados o abintestato, o, incluso, legatarios afectados por el usufructo legal del viudo, ya sean descendientes, ascendientes o colaterales del causante o, incluso, extraños al mismo, y tanto si dicha cuota viudal recae sobre el tercio de mejora como en el de libre disposición, y desde esta óptica, en consonancia a que la mención de «herederos» se refiere sólo a los «afectados» por el usufructo de la viuda, a quienes compete la posibilidad de elegir entre las distintas opciones establecidas en el artículo 839, al tratarse de una carga sobre su porción hereditaria, es preciso entender que a ellos exclusivamente les está permitida la facultad de elección, que no se facilita a la recurrente, dado que ella es la beneficiaria de la cuota viudal usufructuaria, con independencia de la institución de heredera universal verificada por el causante en su testamento.

(2) Kommutazio berezia, Kodeko 840. artikulua arautzen du: *cuando el cónyuge viudo concurra con hijos sólo del causante, podrá exigir que su derecho de usufructo le sea satisfecho, a elección de los hijos, asignándole un capital en dinero o un lote de bienes hereditarios.* Alarguna kausatzailearenak bakarrik diren umeekin batera balego oinordetzan eta usufruktua horiek jasotako ondasunen gainekoa bada, alargunari berari zabaltzen zaio kommutatzeko eskubidea, betiere ondasun horietara mugatua. Helburu berezia zera da: hildakoaren ezkontzaz kanpoko ume horiekin alargunak izan ditzakeen liskarrak saihestea. Aurrekoarekin batera ere ager daiteke kommutazio berezi hori.

Usufruktu-eskubidea balioesteko eta, hala dagokionean, diruzko obligazio bihurtzeko, Kodeak ez du araurik ematen. Interesatuen arteko adostasunik ezean, adituen iritzira jo beharko da, egitatezko arazoa baita.

Euskal Autonomi Erkidegoko zuzenbide zibilean, **izatezko bikoteari** buruzko erregimenari dagokionez, honela zehazten da eremua: *lege hau aplikatzeko, izatezko bikotea da bi pertsonaren arteko elkartze askearen ondorioa; pertsona horiek adinez nagusi edo adingabeko emantzipatuak izan behar dute, gaitasun osoa izan behar dute, eta ezin dute euren artean lerro zuzeneko odol- edo adopzio-ahaidetasunik eduki, ez eta alboko lerroko bigarren mailako odol-ahaidetasunik ere. Harreman sexual edo afektiboa izan behar dute elkarren artean, eta berdin izango da pertsona horiek sexu berekoak edo desberdinekoak izatea. Gainera, bikoteko kideek, ez batak ez besteak, ezin dute ezkontza edo izatezko bikotearen bidezko loturarik izan beste inorekin ere (2. art.).*

(1) Alde batetik: *bikoteek, berriazko hitzarmen bat egin ezean, badute era orokor batez ezarritako klausulei heltzea. Klausula orokor horietan honako alderdi hauek egongo dira aurreikusita: (...)*
c) *Kideetako baten heriotzagatik edo heriotza-deklarazioarengatik bikote-harremana amaitzen denean, bizirik gelditzen den bikotekideak edukiko duen eskubidea etxeko arreoaren jabetzarako eta heriotzaren ondoko urtean zehar etxebizitza erkidea erabiltzeko, baldin eta bien artean elkarbizitza egon bazen eta nahitaezko oinordekoen seniparteari kalterik eragiten ez bazaio. Ez du eskubide hori izango izatezko bikote berria eratzen badu edo ezkondu egiten bada (6. art.).*

(2) Bestaldetik: *Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilaren uztailaren 1eko 3/1992 Legeak ezarritako ondorioetarako, izatezko bikoteak ezkonduetako bikoteen parekotzat hartuko dira. Horrela, bada, oinordetza-erregimenari dagokionez, eta kasuan-kasuan aplikatzekoa den foru-zuzenbide zibilaren arabera: 1. Kideetako bat hiltzen denean bizirik irauten duenak ondasun erkide guztien gozamina eduki dezan hitzartu ahal izango dute. 2. Elkarren artean ondasun guztiez xedatu ahal izango dute agiri bakar batean, testamentu mankomunatu edo elkarrekikoaren bidez, eta biek ezeztatu edo aldatu egin ahal izango dute testamentu hori. 3. Testamentuan edo oinordetza-itunean, batak bestea eskuorde izendatu ahal izango du (9. art.).*

(3) Bukatzeko: *izatezko bikotea osatzen duten kideetakoren bat hil egiten baldin bada, beste kideak gorpua identifikatu, eskuratu, lur eman, hildakoaren objektuak jaso eta beharrezko diren gainerako izapide eta kudeaketa-lanetan parte hartu ahal izango du, ezkondu egiten duten baldintza beretan (15. art.).*

IV.-HOBEEKUNTZA: AIPAMEN BEREZIA

1.-Kontzeptua eta izaera juridikoa

KZeko 823. artikulua horrela dio: *El padre o la madre podrán disponer en concepto de mejora a favor de alguno o algunos de sus hijos o descendientes, ya lo sean por naturaleza, ya por adopción, de una de las dos terceras partes destinadas a legítima*. Hobetzea, beraz, testatzaileak duen ahalmen bat da, ez betebeharra. Senipartea, berez, jaraunspenaren bi herenek osatzen dute, SENIPARTE ZABALA. Bi heren hoiien erdia SENIPARTE HERTSIA izango da, senipartedunen artean derrigorrez parte berdinetan banatu beharrekoa, ordezkatzeko eskubidea kontutan hartuta; eta beste erdia, testatzaileak nahi izanez gero, hobekuntza gisa erabiltzeko izango da. Ez du zergatik heren osoa erabili behar izango horretarako; erabiltzen ez duena, senipartedun guztien artean banatuko da parte berdinetan, berezko eskubidez.

Bi muga ezartzen dizkio legegileak testatzaileari:

1.-Hobekuntza soilik erabili dezake kausatzaileak ondorengoen artean. Hori bai, biloba hobetu dezake semea edo alaba bizirik egonik ere (biloba ez da, orduan, seniparteduna izango), seniparte hertsiarekin gertatu ezin dena, alegia.

2.-KZeko 824. artikulua errespetatu beharko du, gainera, hobetzaileak: *No podrán imponerse sobre la mejora otros gravámenes que los que se establezcan a favor de los legitimarios o sus descendientes*. Beraz, hobekuntza gisa uzten zaiona hobetuari ezin izango da grabatua edo kargatua egon, karga senipartedun edo hauen ondorengoen aldekoa ez bada.

Aipatu beharra dago, gainera, hobekuntza erabili ahal izateko senipartedun edo ondorengo aniztasuna beharko duela testatzaileak: gutxienez bi. Bakarra badago, seniparte osoa izan beharko da berarentzat. Hobetzea, beraz, ezberdintasunak egitea da. Halaber, kontutan hartu beharko da hobekuntza, senipartearen zati den heinean, titulu ezberdinez jaso daitekela: jaraunse gisa, legatutun bezala edo eta kausatzailea bizirik dagoela honen eskutik jasotako *inter vivos* dohaintza baten bidez.

2.-Sujetuak

2.1.-Hobekuntza xedatzaileak

KZeko 830. artikulua honako hau xedatzen du: *La facultad de mejorar no puede encomendarse a otro*. Badirudi, beraz, testatzailea izan daitekeela hobekuntza erabili dezakeen bakarra, bere senipartedun eta ondorengoaren artean. Hala ere, 831.1 artikulua salbuespen bat ezartzen du: *No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, podrán conferirse facultades al cónyuge en testamento para que, fallecido el testador, pueda realizar a favor de los hijos comunes mejoras incluso con cargo al tercio de libre disposición y, en general, adjudicaciones o atribuciones de bienes concretos por cualquier título o concepto sucesorio o particiones, incluidas las que tengan por objeto bienes de la sociedad conyugal disuelta que esté sin liquidar*.

KZeko 831. artikulua benetan luzea da. Testatzailearen ezkontidearen aldeko ahalmenei buruz aritzen da, testatzaileak testamentuan hala erabaki duenean; alarguna izan dadin, bion seme-alaben alde, hobekuntzak, legatuak eta banaketa egiteko boterea duena, kausatzailea hildakoan. Laburtu dezagun artikulua beste paragrafoetan ezartzen duena, beraz:

831.1.-Ezkontide alargunak egintza bakar baten edo jarraian egindako zenbait egintzetan egikaritu dezake kausatzaileak emandako ahalmena.

Ez badio kausatzaileak eperik ezarri ahalmena egikaritzeko, eta ez badio alargunari bere testamentuan ahalmen hori egikaritzeko aukerarik eman, orduan alargunak BI URTE izango ditu ahalmena egikaritzeko oinordetza ireki denetik edo haien azken seme-alaba emantzipatzen denetik.

Alargunak ahalmenaren egikaritzan burutzen dituen esleipenek, gauza zehatzen gainekoak baldin badira, JABETZA eta EDUKITZA ematen diete seme-alaba onuradunei.

831.2.-Xedapenak edo esleipenak egin bitartean, jaraunspenaren ADMINISTRAZIOA alargunaren eskuetan geratzen da.

831.3.-Alargunak beti errespetatu beharko ditu ondorengo amankomunen SENIPARTE HERTSIK eta kausatzaileak hauen hobekuntzaren inguruan eman izan dizkion argibideak. Ez baditu

hoiek errespetatzen, kaltetuak alargunaren egintzen ERRESZISIOA eska lezake bere kaltea konpontzeko behar den heinean. Seniparteak eta kausatzailearen xedapenak errespetatuak izan direla ulertuko da, senipartedunek edo eta onuradunek jaso behar zutena jaso badute, nahiz eta ezkontide alargunaren dirua izan jaso dutena.

831.4.-Senipartearen eraentza ez da aldatuko onuradunak kausatzailearen seme-alabak eta ondorengoak baldin badira, baina beste pertsona batekin izandakoak direnean, ez ezkontide alargunarekin. Honek errespetatu beharko ditu seniparteok eta ahalmena izango du xedapen hoiek exekutatzeko eta ondasunak esleitzeko. Alargunarena ez den kausatzailearen ondorengo bat preteritua izan bada honen testamentuan, alargunaren ahalmenak ezingo du preteritua dagokion parterik gabe utzi.

831.5.-Kausatzaileak besterik xedatzen ez badu, alargunak galduko du harek emandako ahalmena BERRIZ EZKONTZEN BADA, IZATEZKO BIKOTEA BADU edo SEME-ALABA BAT BADU beste pertsona batekin.

831.6.-Aurreko paragrafoetan ezarritako xedapenak aplikagarriak izango zaizkie ezkondurik ez dauden bikoteei ere.

Beraz, hobekuntza xedatzailea KAUSATZAILEA edo BERE EZKONTIDE ALARGUNA izango dira, kasuz-kasu. Beste inor ez.

2.2.-Hobetuak

Kausatzailearen seme-alaba eta ondorengoak dira hobetuak izan daitezkeneak. Biloba bat hobetua izan daiteke bere aita edo ama bizirik egonda ere, beraz, hobetuak ez du seniparteduna izan behar. Bizirik egon beharko du kausatzailea hiltzen denean, hori bai, eta gogora dezagun, beti ere, ez dagoela ORDEZKATZE ESKUBIDERIK hobekuntzan, solik, seniparte hertsian.

3.-Hobekuntza xedatzeko moduak

- 1) **Testamentu bidez:** Kausatzaileak testamentuan bertan xedatu dezake ondorengo batentzat hobekuntza, osoa edo

zati bat bakarrik. Jaraunsle tituluz edo legatudun gisa, KZeko 828. artikulua argi uzten duen bezala.

- 2) ***Inter vivos dohaintza bidez***: Kausatzailea bizirik dagoen bitartean, ondorengo bati, seniparteduna ala ez, dohaintza bat egin diezaioke hobetzeko asmo argia adieraziz. Bestetan, isilbidezko hobekuntzak ere ateratzen dira.
- 3) ***Ezkontz-kapitulazioetan***: Aukera hau KZeko 827. artikulua aurreikusten du: *La mejora, aunque se haya verificado con entrega de bienes, será revocable, a menos que se haya hecho por capitulaciones matrimoniales o por contrato oneroso celebrado con un tercero.* Kasu hau OINORDETZA ITUN bat dela onartzen du doktrinak, KZeko 1.271.II artikulua ezartzen duenaren salbuespen bat, alegia. Kontratu bidez xedatu badu kausatzaileak hobekuntza, hobetuarekin edo hirugarren batekin sinatua, ez da errebokagarria izango, beraz.
- 4) ***Hobetzeko promesa edo zina***: KZeko 826. artikulua aurreikusten du suposamendu hau: *La promesa de mejorar o no mejorar, hecha por escritura pública en capitulaciones matrimoniales, será válida. La disposición del testador contraria a la promesa no producirá efecto.* Beste OINORDETZA ITUN bat ageri da hipotesi honetan, errebokaezina, beraz.

4.-Hobekuntzaren objektua

KZeko 829 eta 832. artikuluetan arautzen da. Aipatutako lehenengo artikulua honako hau dio: *La mejora podrá señalarse en cosa determinada. Si el valor de ésta excediere del tercio destinado a la mejora y de la parte de legítima correspondiente al mejorado, deberá éste abonar la diferencia en metálico a los demás interesados.* Beti ere, ez bada parte askean kabitzen, hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala.

KZeko 832. artikulua, aldiz, horrela dio: *Cuando la mejora no hubiere sido señalada en cosa determinada, será pagada con los mismos bienes hereditarios, observándose en cuanto puedan tener lugar, las reglas establecidas en los artículos 1.061 y 1.062 para procurar la igualdad de los herederos en la partición de los bienes.*

5.-Errebokagarritasuna eta kargak

Hobekuntza errebokagarria da testamentu bidez ezarria izan bada, testamentua bera errebokagarria delako, noski. Ezkontz-kapitulaziotan xedatu bada ez da errebokagarria izango, aldiz, kontratuak direlako, OINORDETZA ITUNAK, nahiz promesa soila izan. Erdi bidean dohaintza bidez xedatutako hobekuntza legoke: errebokagarria izango da, soilik dohaintza bera errebokagarria denean.

Hobekuntzan bakarrik ezarri daitezke KARGAK, KZeko 824. artikuluari jarraiki, karga hoi en onuradunak beste senipartedunak edo hauen ondorengoak baldin badira.

6.-Onarpena eta zapuzketa

KZeko 833. artikulua en arabera, *el hijo o descendiente mejorado podrá renunciar la herencia y aceptar la mejora*. Onarpenean edo zapuzketan independenteak dira, beraz, jaraunspena eta hobekuntza.

V.-SENIPARTEA KALKULATZEA

Senipartea kalkulatzeko oinarri juridikoa KZeko 818. artikulua ezartzen du: *para fijar la legítima se atenderá al valor de los bienes que quedaren a la muerte del testador, con deducción de las deudas y cargas, sin comprender entre ellas las impuestas en el testamento. Al valor líquido de los bienes hereditarios se agregará el de las donaciones colacionables*. Senipartedun bakoitzari dagokiona kalkulatzeko, beraz, lehenengo kalkulu osoa egin beharko da, hau da, zer da senipartedun guztien artean banatu beharrekoa.

Bi balio atera behar dira, halaberrez: **RELICTUM** eta **DONATUM**. *Relictum*-a osatzen dute kausatzailearen oinordetza irekitzean dauden ondasun guztiek, hauei zorrak eta kargak kenduta (baina ez testamentuan kausatzaileak ezarritako kargak). Balio likido bat ateratzea da *Relictum*-aren helburua; zorrak kenduta, banatzeko geratuko litzatekeena. Ondasunak jaraunspena kitatzen denean balioetsi behar dira, KZeko 847. artikulua dioen bezala. Gero, behin *Relictum*-a kalkulatu eta gero (caudal relicto), balio hari *Donatum*-a gehitu behar zaio, hau da, kausatzaileak bizirik zegoenean burutu zituen dohaintza guztien balioa, senipartedunei egindakoak (kolazionagarriak direnak, alegia) eta senipartedunak ez direnen

alde egindakoak, senitartekoak ez direnei egindakoak barne. Dohaintza guztiak gehitu behar dira, kausatzaileak egin lezakeen maula ekiditeko, alegia. Senipartea kalkulatzeko dohaintza guzti hoi balioa ekarri behar da konputura, hortik gero senipartedunen zatia atera ahal izateko.

$$\begin{array}{|c|} \hline \text{JARAUNSPEN} \\ \text{E-KO} \\ \text{ONDASUNEN} \\ \text{BALIOA} \\ \text{LIKIDAZIO} \\ \hline \end{array}
 \quad M \quad - \quad
 \begin{array}{|c|} \hline \text{ZORRAK ETA} \\ \text{KARGAK} \\ \text{(Testamentuan} \\ \text{ezarritakoak} \\ \text{ez)} \\ \hline \end{array}
 \quad \text{REL} \quad =$$

$$\begin{array}{|c|} \hline \text{RELICTU} \\ \text{M} \\ \hline \end{array}
 \quad \text{ria} \quad
 \begin{array}{|c|} \hline \text{DONATUM} \\ \hline \end{array}
 \quad = \text{ Senipartea}$$

$$\begin{array}{|c|} \hline \text{SENIPARTEA} \\ \text{KALKULATZE} \\ \text{KO} \\ \text{OINARRIA} \\ \hline \end{array}
 \quad X \quad
 \begin{array}{|c|} \hline \text{SENIPARTEDU} \\ \text{N} \\ \text{BAKOITZARI} \\ \text{DAGOKION} \\ \text{PROPURTZIOA} \\ \hline \end{array}
 \quad = \quad \text{SENIPARTE}$$

Hiru operazio hauek, beraz, jaraunspena likidatzeko momentuan burutzen dira eta batez ere, bi datu lortzeko ezinbestekoak dira:

1.-Senipartedunei zenbat zor zaien jakiteko, baita parte askea zenbatean geratzen den jakiteko.

2.-Jaraunse tituluz, legatu bidez edo dohaintza bidez kausatzaileak utzi duena gehiegizkoa den jakiteko, hau da, senipartea kaltetzen dituzten jakiteko. Hau horrela bada, murriztu egin behar dira, seniparte guztiak errespetatuak izan daitezen, gero ikusi ahal izango dugun bezala.

VI.-SENIPARTEAREN UKIEZINTASUNA

Atal honetan senipartearen ukiezintasuna jorratuko dugu, bi eremutan: UKIEZINTASUN KUANTITATIBOA eta UKIEZINTASUN KUALITATIBOA. Senipartea ezin da baztertu, ez dago kausatzailearen esku hori egitea. Legegileak agintzen duenez, senipartea errespetatu behar da kantitateari edo kopuruari begira, baita bere kalitateari so eginez ere. Azter ditzagun bi aspektu hauek banaka.

1.-SENIPARTEAREN UKIEZINTASUN KUANTITATIBOA

Esan bezala, legegileak senipartea bere osotasunean errespetatu behar dela agintzen du. Senipartedunei ezin zaie zor zaiena baino gutxiago eman: ezin du kausatzaileak maularik egin puntu honetan, eta egingo balu ere, legea arduratzen da, tresna ezberdinen bidez, seniparteak osatzen. Horretarako, lehenengoz, aurreko atalean azaldu dugun bezala, relictum-ari donatum-a gehitu egin behar zaio, hots, jaraunspenean kausatzaileak utzitako ondare likidoari hark bizirik zegoen bitartean egin zituen dohaintza guztiak gehitu behar zaizkio, alegia. Behin seniparteak kalkulatzeko oinarri erreala jakinik, bi operazio gehiago egin behar dira: EGOZPENA eta, behar izatekotan, MURRIZKETA. Azal ditzagun biak banan-banan.

1.1.-EGOZPENA

Operazio honen bidez kausatzaileak xedatu dituen dohaintzak eta legatuak aztertu behar dira, gehiegizkoak diren ala ez jakiteko, hau da, murriztu egin behar diren ala ez jakiteko. Horretarako kontutan hartu behar da noren alde egin den dohaintza edo legatua eta, horren arabera, berari dagokion zatian KABITZEN den ala ez.

a) Dohaintzak egozte

1.-Seme-alaba eta ondorengoen alde eginiko dohaintzak, senipartedunak direnean, modu ezberdinean egozten dira, hobetzeko asmoz egin diren ala ez kontutan hartuta. Hobetzeko izan badira, esanbidez hala agindu duelako kausatzaileak, lehenengo HOBKUNTZAN egotziko zaizkio onuradunari, gero

bere SENIPARTEAN eta azkenik, beste ataletan kabitu ez badira, PARTE ASKEAN (KZeko 825. art). Hobekuntza okupatuta baldin badago, testamentu bidez, ezkontz-kapitulazio bidez edo dohaintza bidez kausatzaileak hala ezarri duelako, egozpena ezin izango da burutu edo soilik zati baten, libre geratzen den zatian, hain zuzen ere. Parte askean beste batzuk deituak badaude, ordea, dohaintza bertan egotzi ahal izango da eta bertara deituek ez dute ezer ere jasoko, dohaintzak lehentasuna baitu.

2.-Senipartedunak edo ondorengoak ez direnei egindako dohaintzak, aldiz, PARTE ASKEAN egotziko dira beti, beste zatiak ez baitira haientzat.

3.-Dohaintzak senipartedun ez diren ondorengoen aldekoak badira, bi modutan egin daiteke egozpena: HOBKUNTZAN lehenengo eta PARTE ASKEAN gero, hobetzeko asmo argiaz egin izan badira, eta PARTE ASKEAN lehenengo eta HOBKUNTZAN gero (hau okupatuta ez badago), ez badira hobetzeko asmoarekin egin.

4.-Aurre-ahaideei eginiko dohaintzak bi modutan egotziko dira, halaber: senipartedunak badira, lehenengo SENIPARTEAN eta gero PARTE ASKEAN. Ez badira senipartedunak, PARTE ASKEAN soilik.

b) Legatuak egoztea

1.-Seme-alaba edo ondorengoen alde xedatutakoak, senipartedunak baldin badira, modu ezberdinetan egotziko dira:

a) Haien senipartea beste modu batez jaso EZ badute (jaraunsle gisa edo dohaintza bidez), eta hobetzeko asmoz egin EZ denean: lehenengo SENIPARTEAN, gero PARTE ASKEAN eta azkenik HOBKUNTZAN (hau okupatua ez dagoen zatian).

b) Senipartea dagoeneko jaso badute beste modu batez eta hobetzeko asmoz egin EZ bada legatua, lehenengo PARTE ASKEAN eta gero HOBKUNTZAN (hau okupatua ez dagoen zatian)

d) Legatua hobetzeko esanbidez xedatu bada, lehenengo HOBKUNTZAN, gero SENIPARTEAN (beste modu batez jaso ez badute), eta azkenik PARTE ASKEAN.

2.-Senipartedun edo ondorengo ez direnen alde xedatutakoak, beti PARTE ASKEAN.

3.-Senipartedunak ez diren ondorengoan alde xedatutakoak, HOBEKUNTZAN (esanbidez hobetzeko asmoz ezarri bada) eta PARTE ASKEAN. Ez bada hobetzeko asmoz xedatu, PARTE ASKEAN eta HOBEKUNTZAN (hau libre badago).

4.-Aurre-ahaideen aldeko legatuak, senipartedunak badira, SENIPARTEAN (beste tituluz jaso ez badute haien senipartea) eta PARTE ASKEAN. Ez badira senipartedunak, PARTE ASKEAN.

1.2.-MURRIZKETA

Behin dohaintzak eta legatuak egotzita, badakigu zeintzuk diren gehiegizkoak, jaraunspenean bakoitzari dagokiona gainditzen dutelako eta, beraz, senipartedunen senipartea ez direlako errespetatu. Gehiegizkoak diren xedapenak, hortaz, murriztu egin behar dira senipartea errespetatuak izan daitezten. Gehiegizkoak diren xedapen hoi murrizketa ordena honako hau da:

1.-JARAUNSLE IZENDAPENAK

2.-LEGATUAK

3.-DOHAINZAK

Xedapenak murriztekotan, beraz, gehiegizkoak izanik, lehenengo jaraunsle izendatutakoei kenduko zaie. Ez bada nahiko, legatu-hartzaileei, eta, azken errekurso gisa, dohaintza-hartzaileei. Preferentzia dute, beraz, dohaintzek legatuen aurrean, eta legatuek jaraunsle izendapenen aurrean. Lehentasuna dutenak azkenak dira murrizketan. Azter ditzagun, banan-banan, dohaintzetatik hasita.

1.-Dohaintzen murrizketa

Aurreko ordena jarraitu ostean dohaintzak murriztu behar badira (KZeko 636. art), gehiegizkoak direlako eta, beraz, senipartea errespetatzen ez direlako, kaltetuak izan diren senipartedunek MURRIZKETA AKZIOA tarteratu beharko dute (KZeko 655.1 art). Ez dute kaltetu guztiek batera eskatu behar, baina eskatzen dutenek bakarrik lortuko dute murrizketaren onura, ez denek. Akzioa ezin da

aldez aurretik errenuntziatu eta kausatzaileak ezin du bere egikaritza debekatu. Debekua ez jarritzat hartuko litzateke (KZeko 655.2 art). ERRESZISIO akzio bat da, lau urteko preskripzio epea duena kaltea egin denetik kontatuta.

KZeko 656. artikulua dionaren arabera, dohaintzen artean, hala ere, lehentasuna izango dute zaharrenek, hau da, lehenengo egin zirenek. Berrienak izango dira murriztuko diren lehenengoak. Data berekoak baldin badira, proportzioz murriztu beharko dira.

Akzioaren efektuz, erreszindituko lirateke dohaintzok eta, seniparteak errespetatzeko behar den heinean, ondasunak *in natura* bueltatu beharko lirateke jaraunspenera, banaketa ondo egiteko. Fede oneko hirugarren baten esku baleude ondasunok, balioa ekarriko litzateke jaraunspenera, hau da, dirua. Analogiaz, gainera, 821. artikulua dioena aplikatu beharko litzateke, ondasunak *in natura* bueltatu beharraren beste salbuespen bat: *Cuando el legado sujeto a reducción consista en una finca que no admita cómoda división, quedará ésta para el legatario si la reducción no absorbe la mitad de su valor, y en caso contrario para los herederos forzosos; pero aquél y éstos deberán abonarse su respectivo haber en dinero. El legatario que tenga derecho a legítima podrá retener toda la finca, con tal que su valor no supere el importe de la porción disponible y de la cuota que le corresponda por legítima. Si los herederos o legatarios no quieren usar del derecho que se les concede en este artículo se venderá la finca en pública subasta, a instancia de cualquiera de los interesados.* Dohaintzaren fruituei dagokienez, halaber, soilik bueltatu beharko dira akzioa tarteratzen denetik (KZeko 651. art).

2.-Legatuen murrizketa

Legatuak gehiegizkoak direnean, senipartea gainditzen dutenean, murriztu egin beharko dira, KZeko 817. artikulua argi ezartzen duen bezala: *las disposiciones testamentarias que mengüen la legítima de los herederos forzosos se reducirán, a petición de éstos, en lo que fueren inoficiosas o excesivas.* KZeko 820 eta hurrengo artikuluetan ezartzen dira murrizketa hau aurrera eramateko arauak. 820. artikulua arabera, *fijada la legítima con arreglo a los dos artículos anteriores, se hará la reducción como sigue: 1.º Se respetarán las donaciones mientras pueda cubrirse la legítima, reduciendo o anulando, si necesario fuere, las mandas [legatuak] hechas en testamento. 2.º La reducción de éstas se hará a prorrata, sin distinción alguna. Si el testador hubiere dispuesto que*

se pague cierto legado con preferencia a otros, no sufrirá aquél reducción sino después de haberse aplicado éstos por entero al pago de la legítima. Beraz, lehenasuna duten legatuak azkenean murriztu egingo dira, beste guztiak, proportzioz.

Senipartedun kaltetuek MURRIZKETA AKZIOA tarteratu beharko dute, lau urteko preskripzio epean kaltea suertatu denetik (akzio bakar baten efektuz egingo dira murrizketa denak, ez dira dohaintzak, legatuak eta jaraunsle izendapenak murrizteko hiru akzio tarteratu behar). *In natura* bueltatu beharko dira, beraz, ondasunak, senipartedunei dagokiena itzultzeko, 821. artikulua ezartzen duen salbuespena kontutan hartuta edo eta fede oneko hirugarren batek ondasunak ditueneko hipotesia kenduta. Halaber, KZeko 822. artikulua ezartzen duen suposamendua hartu behar da kontutan: *La donación o legado de un derecho de habitación sobre la vivienda habitual que su titular haga a favor de un legitimario persona con discapacidad, no se computará para el cálculo de las legítimas si en el momento del fallecimiento ambos estuvieren conviviendo en ella. Este derecho de habitación se atribuirá por ministerio de la ley en las mismas condiciones al legitimario discapacitado que lo necesite y que estuviera conviviendo con el fallecido, a menos que el testador hubiera dispuesto otra cosa o lo hubiera excluido expresamente, pero su titular no podrá impedir que continúen conviviendo los demás legitimarios mientras lo necesiten. El derecho a que se refieren los dos párrafos anteriores será intransmisible. Lo dispuesto en los dos primeros párrafos no impedirá la atribución al cónyuge de los derechos regulados en los artículos 1406 y 1407 de este Código, que coexistirán con el de habitación.*

3.-Jaraunsle izendapenaren murrizketa

Dohaintza eta legatuen ostean jartzen dugun arren, jakin badakigu murrizketa ordenean jaraunsle tituluz jasotakoa murrizten dela lehenengo, KZeko 817. artikuluari jarraiki (ikus, ere, KZeko 814.1 eta 851 artikulua).

4.-Azko osagarria: KZeko 815. artikulua

KZeko 815. artikulua honako hau xedatzen du: El heredero forzoso a quien el testador haya dejado por cualquier título menos de la legítima que le corresponda, podrá pedir el complemento de la misma. MURRIZKETA AKZIOA eta AKZIO OSAGARRIA, beraz, txanpon beraren bi aurpegiak dira, efektu berdinak dituztelarik. Jaraunse izendapenaren, legatuen eta dohaintzen murrizketa eskatzea, zure senipartearen osagarria eskatzea da, falta zaizuna itzultzea, alegia. Lau urteko preskripzio epea duen akzioa da beraz, ERRESZISIO akzio bat.

2.-SENIPARTEAREN KUALITATIBOA

UKIEZINTASUN

Senipartearen ukiezintasun kualitatikoak bi alderdi ditu:

(1) Senipartearen objektua, oro har, jaraunspeneko ondasunak dira. Senipartea jaraunspena osatzen duten ondasunekin ordaindu behar da, beraz.

(2) Objektu horrek zamarik ez du izan behar.

Lehen alderdiaren arabera, senipartedunak eskubidea du dagokion senipartea kobratzeko, jaraunspeneko ondasunak jasota [*pars bonorum*]. Hain zuzen ere, senipartedunak asetzeko, jaraunspeneko ondasunak erabili behar dira. Arau orokorra hori baldin bada ere, arau horrek baditu salbuespenak, *pars valoris* hipotesiak, zeinetan senipartea dirutan ordaintzen den eta ez jaraunspeneko ondasunekin:

(1) Cuando el legado sujeto a reducción consista en una finca que no admita cómoda división, quedará ésta para el legatario si la reducción no absorbe la mitad de su valor, y en caso contrario para los herederos forzosos; pero aquél y éstos deberán abonarse su respectivo haber en dinero. El legatario que tenga derecho a legítima podrá retener toda la finca, con tal que su valor no supere al importe de la porción disponible y de la cuota que le corresponda por legítima (KZeko 821.1 eta 2. art.).

(2) Si los herederos o legatarios no quieren usar del derecho que se les concede en el artículo anterior, podrá usarlo el que de ellos no lo tenía; si éste tampoco quiere usarlo, se venderá la finca en pública subasta, a instancia de cualquiera de los interesados (KZeko 821.3. art.).

(3) *La mejora podrá señalarse en cosa determinada. Si el valor de ésta excediere del tercio destinado a la mejora y de la parte de legítima correspondiente al mejorado, deberá éste abonar la diferencia en metálico a los demás interesados (κzeko 829. art.).*

(4) *Los herederos podrán satisfacer al cónyuge su parte de usufructo, asignándole una renta vitalicia, los productos de determinados bienes, o un capital en efectivo, procediendo de mutuo acuerdo y, en su defecto, por virtud de mandato judicial (KZeko 839. art). Cuando el cónyuge viudo concorra con hijos sólo del causante, podrá exigir que su derecho de usufructo le sea satisfecho, a elección de los hijos, asignándole un capital en dinero o un lote de bienes hereditarios (KZeko 840. art).*

(5) *El testador, o el contador-partidor expresamente autorizado por aquél, podrá adjudicar todos los bienes hereditarios, o parte de ellos, a alguno de los hijos o descendientes, ordenando que se pague en metálico la porción hereditaria de los demás legítimarios. También corresponderá la facultad de pago en metálico en el mismo supuesto del párrafo anterior al contador-partidor dativo a que se refiere el artículo 1057 del Código Civil (κzeko 841. art.).*

(6) *El testador que en atención a la conservación de la empresa o en interés de su familia quiera preservar indivisa una explotación económica o bien mantener el control de una sociedad de capital o grupo de éstas podrá usar de la facultad concedida en este artículo, disponiendo que se pague en metálico su legítima a los demás interesados. A tal efecto, no será necesario que exista metálico suficiente en la herencia para el pago, siendo posible realizar el abono con efectivo extrahereditario y establecer por el testador o por el contador-partidor por él designado aplazamiento, siempre que éste no supere cinco años a contar desde el fallecimiento del testador; podrá ser también de aplicación cualquier otro medio de extinción de las obligaciones. Si no se hubiere establecido la forma de pago, cualquier legítimario podrá exigir su legítima en bienes de la herencia. No será de aplicación a la partición así realizada lo dispuesto en el artículo 843 y en el párrafo primero del artículo 844 (κzeko 1056.2. art.).*

Bigarren alderdiaren arabera, senipartedunek jasotzeko eskubidea duten ondarea ezin da zamatatu; baldintzarik eta ordezenik gabe jasoko da, alegia. Hala agintzen du Kode Zibileko 813. artikulua: *el testador no podrá privar a los herederos de su legítima sino en los casos expresamente determinados por la ley. Tampoco podrá imponer sobre ella gravamen, ni condición, ni sustitución de ninguna especie, salvo lo dispuesto en cuanto al usufructo del viudo y lo establecido en el artículo 808 respecto de los hijos o descendientes judicialmente incapacitados. Seniparteak berezkoa duen ukiezintasuna, gero, Kodeko hainbat artikulutan berresten da (κzeko*

767., 782., 817., 831., 863., 886., 1038., 1056., 1057., 1075. edo 1341. art.).

Ukiezintasun kualitatibo horri buruzko salbuespen bakarra, Kodeko 824. artikuluan jasotzen da, hobekuntzarekiko: *no podrán imponerse sobre la mejora otros gravámenes que los que se establezcan en favor de los legítimarios o sus descendientes*. Esaterako, 782. artikulua zati horren gaineko fideikomiso-ordezpena onartzen du, betiere muga hori errespetatuz. Beraz, seniparte hertsia zamarik gabe jaso behar da, eta hobekuntzan zamak ezarri daitezke, beti ere senipartedunak edo hauen ondorengoak baldin badira zama hoi en onuradunak.

Kontuan izan behar da, edonork baduela bere ondasunak zamatzeko ahalmena eta, ezarritako zamak, baliozkoak direla; hala, *inter vivos* egindako egintzetan ezarri badira, senipartedunek errespetatu beharra daukate zama hori (gozamina, zortasuna, hipoteka...). Beraz, seniparte ezin dela zamatu agintzen denean, *mortis causa* emandako xedapenei buruzko eraentzako agindua dela ulertu behar da; hau da, zamak ezin dira *mortis causa* emandako xedapenetan ezarri.

Ukiezintasun kualitatiboa honako kasu hauetan urratzeaz gain, honako eragin juridiko hauek sortuko ditu:

- (1) Jaraunspeneko ondasunak eman beharrean bestelako ondasunak emanaz gero. Orduan, senipartedunak aukeratu dezake: kausatzaileak esleitutakoa jaso edo, utzitakoa jaso gabe, seniparte-eskubidea baliarazi.
- (2) Zamatutako ondasunak emanaz gero. Orduan, karga horiek ez-jarritzat joko dira, seniparte ukitzen duten heinean bakarrik, noski.
- (3) Usufruktuan emandako ondasunekin edo hil arteko errentarekin bete bada seniparte, Kodeko 820.3. artikulua zera dio: *fijada la legítima con arreglo a los dos artículos anteriores, se hará la reducción como sigue: 3.º Si la manda consiste en un usufructo o renta vitalicia, cuyo valor se tenga por superior a la parte disponible [seniparte urratzen du, beraz], los herederos forzosos podrán escoger entre cumplir la disposición testamentaria o entregar al legatario la parte de la herencia de que podía disponer libremente el testador*. Azken kasu horretan, berez, legatu moduan utzitako usufruktua —seniparte ukitzen duena, hain zuzen, edota hil arteko errenta kommutatzeko ahalmena jasotzen da.

KZeko 820.3 artikuluan jartzen du doktrinak SOCCINI KAUTELAREN onarpena. Ohiturak sortu eta jurisprudentziak onartutako urratze kualitatiboa da *cautio soccini* delakoa; *cautio gualdense* edo *cautela angélica* ere deitzen zaio. Xedapenaren edukia

egokitu badaiteke ere, normalean honetan datza: testamentugileak bere ezkontideari ematen dio jaraunspeneko ondasun guztien usufruktua eta, umeei, berriz, jabetza soila ematen die; gero, xedapen hori errespetatzeko, zera agintzen du kautela moduan: norbaitek testamentuko xedapen hori inpugnatzen badu, dagokion senipartea gutxienera murriztuko da, hau da, seniparte hertsira. Beraz, senipartedunak aukeratu beharko du seniparte hertsia (legegilaren nahia) edo seniparte zamatua baina zabalagoa (testamentugilearen borondatea).

Soccini kautela hori baliozkoa den ezbaian jarri izan da. Gaur egun, jurisprudentziak onartutako xedapena da; bilakaera aztertzeke *vid.* AGEE 1899/1/31 (JC, 86. alea, 148. or.), 1939/12/29 (RAJ 105), 1958/12/12 (RAJ 4196) eta 2003/7/10 (RAJ 4628). Erabaki horren oinarri juridikoa zehazteko, bi arau gogoratu behar dira lehenik: (a) ez da onartzen testamentugileak senipartea zamatzea; (b) senipartedunak uko egin diezaioke seniparteari (*ius dispositivum*) edo zamaduna onartu. Beraz, edozein kasutan, senipartedunak aukeratu beharra dauka, eta legeak ezin du inoiz mugatu senipartedunaren aukeratzeko ahalmena. Orduan, testamentugileak berak aukera ematen badio eta aukeraren arabera senipartea jasotzeko eskubidea errespetatzen bada, senipartedunak badu aukeratzeko ahalmena eta legea ez da urratzen, testamentugilearen borondateak ez baitu kaltetzen senipartea.

Galiziako JANE 2001/2/5 (RAJ 6530): “Apoyándose indirectamente en el artículo 820.3 de dicho código, la misma doctrina científica y jurisprudencial se ha mantenido favorable a la validez de las llamadas cláusulas compensatorias de la legítima o *cautelae socini* entre las que la más frecuente es aquella en que el testador deja el usufructo universal de la herencia al cónyuge, estableciendo que el hijo que impugne la disposición y no quiera tolerar el usufructo tendrá que conformarse con la legítima corta o estricta, o lo que es lo mismo, se coloca a los hijos ante la alternativa de percibir en nuda propiedad una porción superior a su legítima, pero con la carga que implica el usufructo universal en favor del viudo, o recibir exclusivamente su legítima libre del usufructo. Cuando la concesión se realiza jugando con los dos tercios de legítima (participación en ambos para el que se conforma, o participación sólo en el tercio de la estricta para el que impugna), el testador hace uso condicional de su facultad de mejorar”.

VII.-ETORKIZUNEKO SENIPARTEA

XEDATZEKO EZINTASUNA: KZeko 816.

artikulua

KZeko 816. artikulua honako hau ezartzen du: *Toda renuncia o transacción sobre la legítima futura entre el que la debe y sus*

herederos forzosos es nula, y éstos podrán reclamarla cuando muera aquél; pero deberán traer a colación lo que hubiese recibido por la renuncia o transacción. KZeko 1.271.II. artikulua OINORDETZA ITUNAREN ganean ezartzen duen debekuari jarraiki, legegileak debekatu egiten ditu senipartearen inguruko itunak kausatzailearen eta bere senipartedunen artean. Aldez aurretik eginiko negozioak debekatzen ditu legegileak, ez kausatzailea hilik dagoenean senipartedunek haien zatiaren ganean egin ditzaketenak. Hobekuntzaren inguruan zilegiak dira, ordea, itunak, KZeko 826 eta 827. artikulua azaltzerakoan ikusi dugun bezala.

VIII.-SENIPARTEA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA NAFARROAKO ZUZENBIDE ZIBILEAN

4.1. Senipartea Aiarako zuzenbide zibilean

Aiarako zuzenbide zibilean, azken borondatea adierazteko askatasuna da arau orokorra: *Foru-herritasuna daukienez ondasunak askatasun osoz erabil ditzakete, guztiak ala zati bat, testamentuz, agintzaz nahiz dohaintza bidez, derrigorrezko oinordekoak handiaz nahiz txikiaz baztertu ondoren, on ala hobe eritziagatik* (EHFZZLko 134.1. atala).

Beraz, nahitaezko oinordekoak baztertu daitezke oinordetzatik. Honako nahitaezko oinordekoak hauek dira: *Ondorengoak, aurrekoak eta ezkontidea joko dira derrigorrezko oinordetzat, Kode Zibilak erabakitako kasuetan* (EHFZZLko 134.2. atala). Bazterketa, berriz, honela egin daiteke: *1. Bazterketa esan nahiz isilbidezkoa izan daiteke eta, halaber, banakakoa edo baterakoa. 2. Isilbidezko bazterketatzat joko dira nahita aipatu gabekoa eta bidezko zein bidegabeko oinordetza-kentzea. 3. Derrigorrezko oinordeko guztien baterako bazterketak, oinordetzailea hiltzean horrelakoak diren guztiak hartuko ditu* (EHFZZLko 135. atala).

Hala eta guztiz ere, preterizioa gerta daiteke. Hasteko, baztertzeko preteriziorik eza dakar; alegia, berariazko aipamenezko preterizioa litzateke: *Ez dira aipatu gabekotzat joko edozein bidez baztertutako senipartedunak* (EHFZZLko 136. atala). Agian, preterizioa nahi gabekoa izan daiteke: *Nahigabe aipaturik gabeko derrigorrezko oinordekoak, bere senipartea eska dezake. Oinordeko-izendapena eta testamentuko gainerako erabaki guztiak seniparte hori gutxi dezaten neurrian murriztuko dira* (EHFZZLko 137. atala). Orduan, preterizio horren eremua finkatzen da: *Ondorengo guztiak aipatu*

gabe uzten direnean, seniparte luzea jasotzeko eskubidea izango dute ondorengook. Horietakoren bat baino ez bada aipatu gabe utzi gainerako senipartedun aipatutakoetatik gutxien jasotakoak beste hartzeko eskubidea izango du eta, gutxienez, seniparte laburra (EHFZZLko 138. atala). Bukatzeko: Baztertutako ondorengoan ondorengook ez dira aipatugabekotzat joko, eta aurrekoaren ordezkogertatuko dira bazterketan (EHFZZLko 139. atala).

4.2. Seniparte Bizkaiko Zuzenbide zibilean

Bizkaiko zuzenbide zibilean, badaude nahitaezko oinordekoak: Derrigorrezko oinordekoak ondoko hurrenkeraren arauera deituak izango dira, tronkalekoetarako aginduta dagoenaren kalterik gabe: 1. Seme-alabak, ordekoak barruan direla, eta gainerantzeko ondorengook. 2. Gurasoak eta beste aurrekoak (EHFZZLko 53. atala). Baina, lerro bakoitzean eta gradua kontuan izan gabe, jaraunslea aukeratzeko askatasuna ematen zaio: Testamentu-egileak askatasun guztiz bana ditzake derrigorrezko oinordetza osatzen duten ondasunak aurreko atalean aipatutako lerro bakoitzeko oinordekoen artean, edo eurentarik bakarra aukeratu besteak baztertuta, baita belaun-maila urrunagokoa hurbilagokoa baino nahiago izan ere (EHFZZLko 52.1. atala).

Hala, norbait nahitaezko oinordekoa izan arren, **baztertu** daiteke:

(1) Esanbidez: derrigorrezko oinordekoak inongo berariazko bazterketa-esamolderik gabe bazter daitezke, beti ere testamentu-egileak oinordetzarik gabe lagatzeko borondatea argi erakutsi badu (EHFZZLko 54.2. atala).

(2) Isilbidez: tronkaleko aurrekorik ez badago, testamentu-egileak izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronkaleko ondasunetan eta aipatu gabekoak isilbidez baztertuta daudela ulertuko da. Alde honetatik alboko senideek banatutako ondasunek ez dute gutxituko testamentu-egileak askatasunez bana dezakeen zatia (EHFZZLko 57.2. atala).

Bazterketa oinordetza-tituluan jaso behar da baita honako kasu hauetan ere: oinordetza ezkontza-hitzarmenez, oinordetza-itunez edo dohaintza-eskrituraz burutzen denean, bazterketa 54. eta 57. ataletan agindutako eran egin beharko da eta 62.3. atalean esandako ondorioak izango ditu (EHFZZLko 65. atala).

Ezkontza-hitzarmena, oinordetza-itunak edo dohaintza egiten direnean bazterketa ez bada berariazko aipamenez aurreikusten (aurreko hiru aipamenak oinordetza-itunean batu litezke, bakar baten), honako eragin hauek sortuko dira:

(1) Kolazioari dagokionez: *derrigorrezko oinordekoen aldeko dohaintzak ez dira jarauntsira itzuli beharrekoak izango, emaileak aurkakorik agindu ezean edo esanbidezko bazterketarik egin izan ez badu* (EHFZZLko 62.3. atala).

(2) Kopurua zehazteari dagokionez: *tronkaleko ez diren ondasunekin derrigorrezko oinordeko ez direnen alde egindako dohaintzak eta inor berariaz baztertu gabe egindakoak baino ez dira zenbatgarri izango* (EHFZZLko 62.1.3. atala).

Baztertzeo aukerarekin batera, **preterizioaren** arazoa agertzen da. Preterizioa nahita egin bada, orduan, oinordekoa baztertutzat jotzen da: *derrigorrezko oinordekoak inongo berariazko bazterketa-esamolderik gabe bazter daitezke, betiere testamentu-egileak oinordetzarik gabe lagatzeko borondatea argi erakutsi badu* (EHFZZLko 54.2. atala). Gertatzen da, ordea, norbait nahigabe edo errakuntzaz preteritzea: *baztertu gabeko ondorengo baten ondorengoak haren ordezko dira oinordetzan. Bestela, nahi ez dela testamentuan aipatu gabeko inor balego gutxien hartu duen belaun-maila bereko ondorengoaren besteko zatia eskatzeko eskubidea izango luke* (EHFZZLko 54.3. atala).

Senipartedunen eskubidea **zehazteko**, tronkaleko ondasunak (*rerum* senipartea) eta hildakoaren ondasun guztien gaineko zatia (*pars bonorum* senipartea) bereizi behar dira :

(1) Ondorengo senipartea (*rerum* senipartea + *pars bonorum* senipartea): *Testamentu-egilearen ondasun guztien lau bostenek osatzen dute ondorengo senipartea. Beste bostena askatasunez bana daiteke, horretarako tronkaleko ez den nahiko ondasunik baldin badago* (EHFZZLko 55. atala).

(2) Aurreko ahaideen senipartea (*rerum* senipartea + *pars bonorum* senipartea): *Aurrekoen senipartea testamentu-egilearen ondasun guztien erdiak osatzen du. Beste erdia askatasunez banatzekoa da, tronkaleko ondasunak ez badira behintzat* (EHFZZLko 56. atala); *Tronkaleko ondasunei dagokienean, belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko aurrekoak bakoitzaren belaunlerrotik dalozenetarako izango dira oinordeko, 20. ataleko 3. zatian agindutakoaren kalterik gabe* (EHFZZLko 57.1. atala).

(3) Alboko ahaideen senipartea (*rerum* senipartea): *Tronkaleko aurrekorik ez badago, testamentu-egileak izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronkaleko ondasunetan eta aipatu gabekoak isilbidez baztertuta daudela ulertuko da. Alde honetatik alboko senideek banatutako ondasunek ez dute gutxituko*

testamentu-egileak askatasunez bana dezakeen zatia (EHFZZLko 57.2. atala).

Norbait bizkaitarra bada baina **foruduna ez** eta tronkaleko ondasunen titularra bada, aurreikuspen berezia ezartzen da: *bizkaitar forudun ez direnek askatasuna dute tronkaleko ondasunak lehentasunezko belauneko tronkaleko edozeini dohain eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo du hartukizunik izan tronkaleko ez diren ondasunetan, ondasunokin gainontzeko senipartedunei euren legezko seniparte laburra eman arte (EHFZZLko 25. atala).* Oinordetza eta ondarea bakarrak dira, bereizi gabe tronkaleko ondasunei trataera berezia ematen baldin bazaie ere.

Seniparte hori, izaeraz, **ukiezina** da: *Ezin izango zaie seme-alabei, ondorengoei edo aurrekoei askatasunez banatzeko zatia baino ordezen edo karga handiagorik ezarri, beste derrigorrezko oinordekoen alde ez bada. Tronkaleko ondasunen gainean ere ezin izango da ordezen edo kargarik ezarri, belaun-lerro bereko tronkaleko senideren baten alde ez bada. Alargunari aitortutako eskubideak eta bere alde ezarritako gozamen-eskubide orokorraren agintzak ez diote eragingo senipartearen edo tronkaleko ondasunen ukitu-ezinari (EHFZZLko 60. atala).*

Bestalde, **ezkontide alargunak** ere badu seniparte berezia (usufruktu-eskubidea): *Alargunak oinordetzailearen ondasun guztien erdiaren gozamena izango luke, ondorengoekin edo aurrekoekin batera balego. Ondorengo zein aurrekorik ez balego, ondasun guztien bi herenaren gozamena izango luke (EHFZZLko 58.1. eta 2. atala).* Baldin eta egoera haueteko batean ez badago: *jarautsian ez du oinordeko izateko eskubiderik edukiko berari egotzi dakiokkeen arrazoiaगतik dibortziazatutako edo banandutako ezkontideak (EHFZZLko 59. atala).*

Usufruktu eskubideak zamatzen dituen ondasunei buruz zera agintzen da: *Azkenengoz, oinordetzailearen bi belaun-lerroetako tronkaleko ondasunen gainean jarriko da gozamena, lerrootako bakoitzaren edukiaren heinean (EHFZZLko 58.3. atala).*

Kommutatzeko aukera aurreikusten da: *Alargunaren gozamena, tronkaleko ondasunen pentzu denean, eskudiruko kapital baten truke alda dezakete tronkaleko senideek. Alargunak askatasunez erabil dezake dirutza hori eta berori dela eta, ez du gordekizuna jartzeko eta atzera emateko beharkizunik izango hurrengo lerroaldian aipatzen den moduan ezeztatzen bada gozamen hori (EHFZZLko 58.4. atala).* Hain zuzen, gero, usufruktu-eskubide hori

iraungitzeko, honako kausa hauek aipatzen dira: *Alargunaren gozamen-eskubidea ezereztu egingo da berriro ezkontzen bada, edo beste batekin ezkondu-bizimodua badarama, edo ezkondu denboran zein ostean ezkontzatik kanpoko umerik izaten badu, testamentu-egileak besterik agindu ezean behintzat* (EHFZZLko 58.5. atala).

Usufuktu-eskubide horretaz gain, honako hauek ere kontuan izan behar dira:

(1) Usufuktu unibertsala legatzea: *Testamentu-egileak bere ondasun guztien gozamina utz diezaioke ezkontideari, 58. ataleko senipartearentzat ezarritako arrazoi berberengatik iraungiko dena. Agintza hori eta askatasunez banatzeko zatiaren agintza ezin izango dira batera hartu. Hala ere, testamentu-egileak biak aukeran utzi baldin baditu, alargunari dagokio hautatzea* (EHFZZLko 61. atala).

(2) Hil arteko usufuktua: *Legea indarrean jarri aurretik emandako testamentua egiteko podereetan ezkontidea eskuordeko izendatu bada, bizi den artean gozamina izateko eskubidea aitortuko zaio, podere hori erabiltzeagatik iraungiko ez dena* (EHFZZLko Hirugarren Aldibaterako Erabakia).

(3) Foru Komunikazioa iraungitzetik sortutako eskubideak: *Ondorengorik izan ez eta ezkontideetariko baten heriotzagatik amaitzen bada, aurreko ataleko arauetz gain besteok ere erabiliko dira: 1. Hildakoaren baserrira etorritako alargunak, alargun dirauen artean, baserrian jarrai dezake urtebete eta egun batez, legezko edo borondatezko erabakiz dagozkion gainerantzeko eskubideen eragozpenik gabe. 2. Alargunak ezkonsaria edo antzeko ondasuna ekarri balu, aurrean zehaztutako epe hori luzatu egingo litzateke hildakoaren jaraunsleek berori itzultzen eman dezaten denbora guztian zehar. Tronkaleko onibarren ordainbidezko eskuraketak edo hobekuntzak, zeinen lerrotik datozen hartako ezkontidearentzat edo bere tronkaleko jaraunsleentzat izango dira. Edonola ere, ezkontzaren ondasunen jaurpidea kitatzerakoan, beste ezkontideari edo bere oinordekoei dagokien hartzekoa ordaintzeko, kontuan izango da egindako diruezarketen balio eguneratutakoa. Ordainketa hori ezkontide alarguna hil arte egin gabe utz daiteke, bizi den artean bere erdia askatasun osoz gozatu eta erabiltzeko eskubidea aitortzen bait zaio* (EHFZZLko 110. atala).

Senipartearen **zenbatekoa kalkulatzeko** arau orokorra ([relictum - zorrak] + donatum): *Seniparteari dagokion zatia ateratzeko, oinordetzarako deia gauzatzen denean jarauntsiak dituen ondasun guztien balioa hartuko da kontuan, zor eta zorpe guztiak kenduta. Irtetzen duen zenbatekoari dohaintza zenbatgarriena gehituko zaio* (EHFZZLko 62.1.1. atala).

(1) Utzitako ondasunak egoztea: *Oinordetzailearen tronkaleko ondasunak zenbatgarritu egingo dira seniparteari dagokion zatia ateratzeko eta, ezer baino lehen, senipartea ordaintzeko jarriko dira, testamentu-egileak kontrakorik berariaz adierazi ezean (EHFZZLko 62.1.2).*

(2) Dohaintzan emandako ondasunak egoztea: *Tronkaleko ez diren ondasunekin derrigorrezko oinordeko ez direnen alde egindako dohaintzak eta inor berariaz baztertu gabe egindakoak baino ez dira zenbatgarri izango (EHFZZLko 62.1.3. atala).*

(3) Egotzi beharreko dohaintzak balioestea: *Dohaintza zenbatgarrien balioa oinordetzailea hil zenean zutena izango da, hartutako ondasunotan hartzaileak ordaindutako hobekuntza onuragarriak eta konpontzeko eta iraunerazteko egin dituen aparteko gastuak kenduta, bere erruz egin behar izan ez baditu. Ondasunon balioari hartzailearen erruz sortutako eta bere balioa urritu duten andegen balioespenekoa gehituko zaio. Hartzaileak dohaintza-ondasunak inorendu baditu, inorentzerakoan zuten balioa hartuko da kontuan. Hartzailearen erruz galdu diren ondasunetarako, galdu zirenean zuten balioa besterik ez da zenbatgarrituko (EHFZZLko 62.2. atala).*

(4) Kausatzailearen zorrak: *Oinordetzailearen zorrak ondasun mugikorrekina eta tronkaleko ez diren ondasun mugiezinekin ordainduko dira. Ez batekorik eta ez bestekorik ez dagoenean bakarrik izango dira erantzule belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko onibarrak, bakoitzaren heinean (EHFZZLko 63. atala).*

Bizidunen arteko negozioz egindako dohaintzak **egozteari** buruz, tronkaleko ondasunek agertzen dute berezitasuna, lehen adierazi den arauaren arabera: *Oinordetzailearen tronkaleko ondasunak zenbatgarritu egingo dira seniparteari dagokion zatia ateratzeko eta, ezer baino lehen, senipartea ordaintzeko jarriko dira, testamentu-egileak kontrakorik berariaz adierazi ezean (EHFZZLko 62.1.2. atala).*

Bukatzeko, salbuespena da nahitaezko jaraunsleei emandako dohaintzak **kolaziora** ekartzea: *Derrigorrezko oinordekoen aldeko dohaintzak ez dira jarauntsira itzuli beharrekoak izango, emaileak aurkakorik agindu ezean edo esanbidezko bazterketarik egin izan ez badu (EHFZZLko 62.3. atala).* Baina, hala egin behar izanez gero, balioesteko arau hau ezartzen da: *jarauntsira itzuli beharreko dohaintzek banaketa egiteko unean zuten balioa izango dute (EHFZZLko 62.4. atala).*

Kolazioa **egiteko ardura** dutenei buruz, berriz, zera agintzen da: *Testamentu-podererik balego, senipartea zehazteko ondasunen balioa honakook aterako lukete: 1. Eskuordekoak, jarauntsia berari ez badoakio. 2. Eskuordekoak, oinordetzaileak izendatutako*

kontulari-banatzaillearekin batera. 3. Eskuordekoak, oinordeko ustezkoekin batera. 4. Epailearen erabakiz (EHFZZLko 64. atala).

4.3. Senipartea Gipuzkoako Zuzenbide zibilean

Legearen zio-adierazpenak aditzera ematen duenez, “nekazaritzako ustialekua zatitu gabe eskualdatzeko eragozpena izan ohi da, eta oraindik ere bada, Kode Zibilak ezarritako seniparte sistema, Gipuzkoako lurralde historikoan bere horretan indarrean dagoela kontsideratzen bada behintzat. Legeak baserria zatitu gabe eskualdatu ahal izateko aukera eman nahi du, seniparte sistema zeharo bertan behera utzi gabe”. Horregatik, lehenik, seniparteari buruzko eraentza juridikoa zehazten da: *Gipuzkoan indarrean daude Kode Zibilak heriotzaren kausaz xedatzeko askatasunari ezartzen dizkion mugak (III. liburuko III. idazpuruko II. atalburua), baserria zatitu gabe eskualdatzea arautzen duten ondorengo atalek xedatutakoa izan ezik* (EHFZZLko 153. atala).

Baina, “baserriko oinordetza gauzatzerakoan, senipartea ordaindu behar izatea karga handiegia izaten da maiz oinordekoarentzat eta arazoak sortu izan ditu familietan. Horregatik, hori saihesteko aukera eman behar da hala ezarri nahi den kasuetan”: 1. *Kausatzaileak baserria eta hari lotutako ondasunak Kode Zibileko 807. ataleko aurreneko bi zenbakietan aipatzen diren nahitaezko jaraunsleetakoren baten edo, zatitu gabe, batzuen alde xedatzen baditu, onuraduna edo onuradunak baserriaren oinordeko bakarrak direla ulertuko da.* 2. *Halakoetan, eta kausatzaileak espresuki aurkakorik adierazten ez badu, baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa ez da sartuko senipartea zehazteko Kode Zibileko 818. atalak xedatzen duen ondasuntzaren konputoan.* 3. *Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, baserria oinordetzan hartu duten nahitaezko jaraunsleei kausatzailearen gainerako ondaretik dagokien seniparteari egotzi beharko zaio baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa, senipartea ordaintzeko ez besterako.* 4. *Onuradunak seme-alabak edo ordezkapen eskubidea duten ondorengoak badira, seniparte hertsia jasoko dute, hobetzeko erabili ez den hobekuntzako herenean dagokien zatia barne dela.* 5. *Hala ordaindutako zati horren bidez gainerako nahitaezko jaraunsleen seniparteko kuota neurri berean handituko da* (EHFZZLko 154. atala).

Baserria dohaintza bidez ematen den kasuetan ere aplikatuko da araua: 1. *Aurreko atalean xedatutakoa aplikagarria izango zaie, baita ere, baserriaren eta hari lotutako ondasunen dohaintzei, onuraduna edo onuradunak Kode Zibilak 807. ataleko aurreneko bi zenbakietan aipatutako nahitaezko jaraunsleetako bat edo batzuk*

badira, betiere haiek baserriak esleipen unean zuen jarduerari eusten badiote eta zatitu gabe gordetzen badute, dohaintza-emailea hil arte. 2. Aurreko zenbakian adierazitako dohaintzak ez dira kolazionagarriak izango, baldin eta kausatzaileak espresuki aurkakoa adierazten ez badu (EHFZZLko 155. atala). Dohaintzari buruzko eraentzan, gainera, hau ñabartzen da: Baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa senipartearen konputotik kanpo gelditu bada eta, horren ondorioz, haren xedapena egin baino lehenagoko dohaintzaren bat ezofizioso bihurtzen bada, baserria hartutako onuradunak edo onuradunek ezingo dute murriztu dadin eskatu; gainerako nahitaezko jaraunsleek, berriz, eskatu ahal izango dute beren eskubidea (EHFZZLko 163. atala).

Hala, senipartea zehazteko garaian, baserria ez da kontaktetan sartzen, baldin eta onuradunak nahitaezko jaraunsleak badira: *Aurreko ataletan aipatu bezala baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa senipartearen konputotik kanpo uztea bidezkoa izango da bakar-bakarrik kausatzailearen edo dohaintza-emailearen heriotzaren unean onuradunak nahitaezko jaraunsle baldin badira. Ondorio horretarako ez besterako, ondorengo guztiak hartuko dira nahitaezko jaraunsletzat, bai eta oinordetza bera dagokien beste ondorengo batzuen ondorengoak ere (EHFZZLko 156. atala). Orduan, erabat babesten da onuradunak eskuratutakoa: 1. Baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa senipartearen konputotik kanpo geratu bada, onuradunari edo onuradunei egindako esleipena ezingo dute erreklamatu ez bere senipartea osatzeko eskatzen duen nahitaezko jaraunsleak, ez aipatu gabe geratutakoak, ez eta bidegabe desjarauntsiak ere. 2. Esleipen horretan ez du inolako eraginik izango Kode Zibilak ezarritakoari jarraituz senipartea eskudirutan ordaindu behar izanak ere (EHFZZLko 157. atala).*

Eraginei dagokienez, batetik, onuradunak egoera juridiko berezia hartzen du legeko mantenuaren eraentzan: 1. *Nahitaezko jaraunsle diren ondorengo eta aurrekoek, baserria eta hari lotutako ondasunak senipartearen konputotik kanpo gelditu direlako, mantenua eskatzeko legeko egoeran geratu badira, baserriaren onuradunari edo onuradunei eska diezaiekete, horiek kausatzailearengatik jasotakoaren neurrian. 2. Aurreko puntuan xedatutako obligazioa bete egin beharko da onuradunak edo onuradunek baserria eta hari lotutako ondasunak dohaintzan jaso badituzte ere, baldin eta dohaintza-emailea hiltzean aurreko zenbakian aipatutako egoera gertatzen dela nabaria bada. 3. Liburu honetako 161. ataleko 2. zenbakian xedatutakoaren ondorioz, onuradunak edo onuradunek jabetza soila baino ez badute hartu, gozamen eskubidea duen ezkontideari eskatu beharko diote mantenua, eta hura izango da mantenu emailea onuradunari legozkiokien baldintza beretan. 4. Kausatzaileak mantenua jasotzeko eskubidea ken diezaioke Kode Zibileko 853 eta 854. ataletan*

aipatzen den desjaraunsteko kausaren batean sartu den nahitaezko jaraunsleari (EHFZZLko 158. atala).

Bestetik, alargunak baserrian etxebizitza izateko eskubidea izango du: 1. *Baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa senipartearen konputotik kanpo uzten bada, alargun gelditu den ezkontideak famili etxean edo famili etxebizitza modura erabiltzen den etxearen zatian bizitzen jarraitzeko eskubidea izango du. 2. Kausatzailea hiltzen den unean epai irmo bidez bananduta edota, era frogagarrian, bien arteko adostasunez bananduta ez dagoen ezkontideak izango du bertan bizitzen jarraitzeko eskubide hori, eta galdu egingo du berriz ezkontzen bada edo beste pertsona batekin gertatzez ezkonbizitza egiten badu. 3. Kausatzaileak eskubide hori ken diezaioke ezkontideari Kode Zibileko 855. atalean desjarauntsia izateko jasotzen den kausaren batean sartu bada (EHFZZLko 159. atala). Aurreko atalean aipatu den etxean bizitzen jarraitzeko eskubide hori desberdina eta independentea da ezkontide alargunari, Kode Zibileko 834. atalitik 840. atalera bitartekoetan xedatutakoaren arabera, kausatzailearen gainerako ondarearengan dagokion eskubidetik (EHFZZLko 160. atala).*

Bukatzeko, eskuratutako baserriaren gain onuradunak dituen xedatzeko ahalmenetan, mugak ezartzen dira:

(1) *Batetik, zamak ezartzeko: 1. Kausatzaileak baserria eta hari lotutako ondasunak 154. atalean aurreikusitakoari jarraituz xedatzen baditu, ezingo die inolako muga edo kargarik ezarri, aurreko ataletan adierazitakoak eta tokian tokiko usadio eta ohituraren arabera ezartzen direnak izan ezik. 2. Salbuespenez, baliozkoa izango da baserriaren eta hari lotutako ondasunen gozamina ezkontidearen alde xedatzea. Dena dela, alargunak galdu egingo du eskubide hori berriz ezkontzen bada edo gertatzez ezkonbizitza egiten badu, kausatzaileak besterik agindu ez bazuen behintzat (EHFZZLko 161. atala).*

(2) *Bestetik, baserriaren xedea aldatzeko: 1. Kausatzaileak baserria eta hari lotutako ondasunak 154. atalean aurreikusitakoari jarraituz xedatzen baditu, onuradunak edo onuradunek lehen zuen jarduerari eutsi beharko diote gutxienez sei urtez eta erkidegoa zatitzeko ere ezingo dute eskatu. 2. Bestela, onuradunak edo onuradunek nahitaezko jaraunsekideei, edo horien jaraunsleei, kopuru jakin bat ordaindu beharko diete, horiek kausatzailearengandik jaso duten guztiaren eta, baserriaren eta hari lotutako ondasunen balioa senipartearen konputotik kendu ez balitz, seniparte modura jasoko zuketenen arteko aldearen adinakoa. 3. Kalte-ordain horren hartzekodunak kausatzailearen seme-alabak edo ondorengoak badira, ordaindu beharreko kopuru hori seniparte hertsian jasoko luketenaren arabera kalkulatu da. 4. Nolanahi ere, kausatzaileak*

baserria eta hari lotutako ondasunak presenteko eskualdaketa egiten duen oinordetzako itunaren bidez xedatzen baditu, 155. ataleko 1. zenbakian adierazitakoa aintzat hartuko da (EHFZZLko 162. atala).

4.4.-Senipartea Nafarroako Foru Berrian

Nafarroako Foruak 267 eta hurrengo legeetan arautzen du senipartea. Ikus ditzagun legeok banan-banan:

-267. legea:

Concepto

La legítima navarra consiste en la atribución formal a cada uno de los herederos forzosos de cinco sueldos «febles» o «carlines» por bienes muebles y una robada de tierra en los montes comunes por inmuebles. Esta legítima no tiene contenido patrimonial exigible ni atribuye la cualidad de heredero, y el instituido en ella no responderá en ningún caso de las deudas hereditarias ni podrá ejercer las acciones propias del heredero.

-268. legea:

Legitimarios

En testamento y pactos sucesorios deberán ser instituidos en la legítima foral:

- 1) Los hijos matrimoniales, los no matrimoniales y los adoptados con adopción plena.*
- 2) En defecto de cualquiera de ellos, sus respectivos descendientes de grado más próximo*

-269. legea:

Forma

La institución en la legítima foral podrá hacerse para todos los legitimarios en forma colectiva.

-270. legea:

Excepciones

No será necesaria la institución en la legítima foral cuando el disponente hubiera dotado a los legitimarios, les hubiese atribuido cualquier liberalidad a título mortis causa, o los hubiere desheredado por justa causa, o ellos hubieran renunciado a la herencia de aquél, o hubiesen premuerto sin dejar descendencia con derecho a legítima. Serán justas causas de desheredación las comprendidas en los artículos 852 y 853 del Código civil.

-271. legea:

Preterición

La preterición tiene por efecto la nulidad de la institución de heredero, pero deja a salvo las demás disposiciones. Únicamente podrán ejercitar la acción de impugnación el heredero preterido o sus herederos.

IX.-IRAKURGAIK

1. Ukiezintasun kualitatiboa

RAMOS ARMERO, Manuel (1965): “El usufructo testamentario. El acrecimiento en el usufructo sucesivo”, in *Estudios de Derecho Privado II* (Antonio de la E. MARTÍNEZ RADIO), Madril, Editorial Revista de Derecho Privado, 416-451.

VALLET DE GOYTISOLO, Juan (1962): “La opción legal del legítimario cuando el testador ha dispuesto un usufructo o una renta vitalicia que sobrepase la porción disponible”, *Anuario de Derecho Civil*, 589-615.

VATTIER FUENZALIDA (1983): “El pago en metálico de las legítimas de los descendientes”, *Revista de Derecho Privado*, 453.

2. Pertsona ezinduak

RUIZ-RICO RUIZ MORÓN, Julia: “La reforma del derecho de sucesiones con motivo de laprotección de personas con discapacidad”, *Actualidad Civil*, nº 4/2004.

IX.-KOMENTATZEKO TESTUAK

AGE 1989/3/8 (RAJ 2023): Verdaderamente afectan al núcleo esencial de la cuestión litigiosa debatida y que, en esencia, se reduce a determinar si cabe la posibilidad de ejercicio por uno o varios herederos forzosos de la acción de complemento de legítima antes de haberse practicado la partición del caudal hereditario y, por tanto, antes de conocerse a cuánto asciende el importe de la legítima estricta correspondiente a cada heredero, son los motivos segundo y tercero, ambos incardinados en el cauce procesal del ordinal quinto del artículo 1692 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, que, por ello, han de ser estudiados en primer lugar y, además, en forma conjunta, dada la íntima conexión existente entre ellos y por los cuales la recurrente denuncia «infracción del artículo 818 en relación con el 657 del Código Civil» (en el segundo) e «infracción por aplicación indebida del artículo 1079 del Código Civil en relación con los 1056,

1057 y 818 del mismo Cuerpo legal» (en el tercero). Los dos expresados motivos han de ser estimados por las consideraciones siguientes: primera, porque no es ontológica, ni jurídicamente, posible pedir el complemento de legítima, conforme al artículo 815 del Código Civil, que es la única acción que ha sido estimada por la sentencia recurrida (el pronunciamiento desestimatorio de todas las demás ejercitadas -entre ellas la de rescisión de la partición por lesión- no ha sido recurrido), supuesta la existencia de mejoras, sin antes conocer el montante del «quantum» o valor pecuniario que, por legítima estricta, corresponda a cada uno de los herederos forzosos en la herencia de que se trate, para cuyo conocimiento o fijación han de tenerse en cuenta todos los bienes que quedaren a la muerte del testador, con deducción de las deudas y cargas, salvo las impuestas en el testamento, según prescribe el artículo 818 del citado Código, lo que presupone la práctica de las pertinentes operaciones particionales; segunda, porque, aparte de que aquí se trata de dos herencias distintas, que no permiten el tratamiento unitario, englobado y simplista que han pretendido darle los actores y que ha aceptado la sentencia recurrida, de lo que más adelante nos ocuparemos, cuando un testador, diciendo hacer uso de la facultad que le confiere el artículo 1056 del Código Civil, se limita en su testamento a adjudicar algunos de sus bienes a sus herederos forzosos, a los que atribuye por partes iguales el remanente de los demás bienes no adjudicados, y reserva la práctica, de las operaciones particionales para que la realicen los contadores-partidores por él nombrados expresamente, tales adjudicaciones, aunque siempre respetables dentro de los límites legales, no pueden conceptuarse como una partición, a los efectos prevenidos en el citado precepto, como tiene declarado esta Sala -Sentencias de 9 de marzo de 1961; 25 de enero de 1971; 15 de febrero de 1988-, siendo éste el supuesto que nos ocupa, en que los dos testadores (padre y madre de los aquí litigantes), después de adjudicar, en sus respectivos testamentos, algunos de sus bienes (casi todos ellos gananciales), en distinta proporción, a sus hijos, y disponer que si hay excesos a favor de alguno o algunos de los herederos se imputen a los tercios de mejora o de libre disposición y que el remanente de sus bienes (o sea, los no adjudicados) se distribuya entre todos ellos por partes iguales, nombran dos contadores -partidores, con carácter solidario, y después de manifestar su expresa prohibición de toda intervención judicial en sus respectivas testamentarías, con sanción para el heredero que la incumpla de quedar reducida su participación a la legítima estricta, prorrogan a dichos contadores-partidores el plazo para el ejercicio de sus funciones hasta seis años después de la muerte del último de dichos testadores (que fue la madre, que falleció el 24 de marzo de 1984), todo lo cual entraña que, según expresa voluntad de dichos causantes, manifestada en sus respectivos testamentos, que son la ley fundamental de la sucesión, los nombrados contadores-partidores, si no rechazan el cargo (de lo que no hay constancia alguna en autos), serán los que habrán de practicar, dentro del plazo concedido, las

correspondientes operaciones particionales, que equivalen a las practicadas por los propios testadores -Sentencias de esta Sala de 17 de abril de 1943, 25 de abril de 1963, 18 de febrero de 1987- y sólo entonces (o, en otro caso, a través del correspondiente juicio de testamentaría) será cuando podrá saberse si alguno o algunos de los herederos individualmente considerados, no en la forma indiscriminada y global en que lo hacen los actores, ha percibido menos de lo que le corresponde por legítima estricta; tercera, porque al existir dos herencias distintas (las del padre y de la madre de los aquí litigantes) no es posible tratar de mezclar y englobar las dos para, teniendo en cuenta solamente las adjudicaciones hechas en los dos testamentos, sin considerar el remanente de lo no adjudicado concretamente a ninguno, y sumando indiscriminadamente lo adjudicado a todos los herederos, menos la demandada, pretender obtener la conclusión de que a todos ellos (los demandantes) se les ha atribuido menos valor de lo que a cada uno corresponde por legítima estricta, cuando una elemental técnica jurídica exige que, después de practicarse la liquidación de la sociedad de gananciales, que tampoco aparece haber sido realizada en el presente supuesto, los contadores-partidores nombrados expresamente para ello por los testadores, si aceptan el cargo -acerca de lo cual no aparece nada en los autos- (o, en otro caso, acudiéndose al correspondiente juicio de testamentaría) practiquen la partición, por separado, de cada una de las referidas herencias, como único medio de poder conocer el importe o valor de lo que, por legítima estricta, ha de corresponder en cada una de ellas a cada heredero, y sólo entonces podrá saberse si los bienes que le han sido adjudicados en cada uno de los referidos testamentos (que, lógicamente, no son iguales para todos, ni en las mismas proporciones), incrementados con la parte que les corresponda en el remanente de los bienes no adjudicados, alcanza o no el expresado límite mínimo de la legítima estricta, siendo entonces cuando el heredero o herederos, individualmente considerados, que se estimen perjudicados (no todos ellos indiscriminadamente, como han hecho los demandantes en este proceso, al reclamar, sin distinción alguna, a la demandada, cuatro millones cien mil pesetas por el concepto de complemento de legítima) podrán ejercitar la acción de que se crean asistidos.

